

Euskarazko izen arrunten proposamena
Accipitriformes eta Falconiformes ordenentzat

“Munduko hegaztien izendegia” (Iribar et al., 2001)

lanean oinarrituta



**EUSKAL
BATZORDE ORNITOLOGIKOA**
COMITÉ ORNITOLÓGICO
DE EUSKADI

Asier Sarasua, Aitor Galarza, Maite Laso, Aitor Leiza,
Martin Rezola, Edorta Unamuno, Azaitz Unanue, Jon Zubiaur

2024ko abenduan

Euskal Batzorde Ornitologikoa

Izen arrunten proposamena Accipitriformes eta Falconiformes ordenentzat

“Munduko hegaztien izendegia” (Iribar et al., 2001) lanaren berrikuspena

XXI. mende hasieran munduko hegazti guztien euskarazko izenak finkatzeko saiakera egin zuen Elhuyarrek. Ahalegin horren lehenengo urratsa izan zen “Munduko hegaztien izendegia - 1 (Anseriformeak, Fenikopteriformeak eta Falconiformeak)” lana, Amaia Iribarrek koordinatua¹.

Lan harek, zoritxarrez, ez zuen izan ez jarraipenik, ez behar bezalako oihartzunik. Dokumentu hartan proposatutako izenik gehienak ez dira pasa ez hiztegi nagusietara, ez Wikipediara, ezta Euskaltermera ere, eta euskal txorizaleen artean ere ezezagunak dira gehien-gehienak. Azken urteotako zenbait hedapen-lanetan ere, zoritxarrez, beste izen batzuk erabili dira, seguruenez lan honek izandako oihartzun txikiaren ondorioz, txorizaleen artean nahaste apur bat sortuz.

Euskal Batzorde Ornitologikoak, munduko hegaztien euskarazko izenen zerrenda osatzen ari den honetan, erabaki du Elhuyarrek egindako proposamena onartzea munduko 3 ordena horientzat (gaur egun 4 ordena dira, Falconiformes ordena erdibitu ondoren). Horretarako, 2001eko zerrendaren berrikuspena egin du, gaur egungo taxonomiara egokituz eta izen gutxi batzuetan aldaketa txikiren bat proposatuz.

Aurreko txosten batean Anseriformes ordenarekin egin bezala, hemen aurkezten dugun txosten honetan une honetan nazioarteko IOC 14.2 (2024) zerrendan onartzen diren Accipitriformes eta Falconiformes ordenatako espezie guztien euskarazko izendegia aurkezten dugu (329 espezie), egungo taxonomia eguneratuarekin.

¹ Azpimarratu behar da 2001ean Falconiformes ordenean sailkatzen ziren familia eta generoak gaur egun bi ordenatan banatzen direla, Accipitriformes eta Falconiformes ordenatan.

Accipitriformes ordenako izen generikoak

Accipitriformes ordena eguneko harrapari handien taldea da. Hegazti hauek moko sendo eta kakoduna dute; mokoaren goiko alderdia behekoa baino luzeago izan ohi da. Hanka sendoek atzapar zorrotzak dituzte harrapakinak heltzeko eta ikusmen zorrotza harrapakinak urrundik antzemateko.

Munduko kontinente guztietan aurki daitezke, Antartikan izan ezik, eta habitat oso desberdinetan bizi dira: oihan tropikal hezeetan, basamortuetan, sabanetan, mendialdeetan eta baita hiri inguruetan ere. Espezie batzuk migratzaileak dira eta distantzia luzeko bidaiak egiten dituzte urtaroaren arabera.

Elikadurari dagokionez, oso dieta anitza dute. Espezie handienek (arranoek, kasu) ugaztun ertain eta txikiak, hegaztiak eta narrastiak ehizatzen dituzte. Beste batzuk arrainjaleak dira, eta badira intsektuak, karramarroak eta beste ornogabe batzuk jaten dituztenak ere. Saiak eta zopiloteak, aldiz, animalia hilen gorpuzkinez elikatzen dira nagusiki.

Gaur egun, Accipitriformes ordenak lau familia nagusi ditu: Accipitridae (arranoak, miruak, gabiraiak, aztoreak, saiak...), Pandionidae (arrano arrantzalea), Sagittariidae (hegazti idazkaria) eta Cathartidae (kondorrak eta zopiloteak). Guztira 260 espezie inguru biltzen ditu ordenak, 80 generotan banatuta.

Azken 20 urteotan taxonomia aldaketa garrantzitsuak izan dira talde honetan. Aipagarriena da hegazti guzti hauek duela gutxira arte Falconiformes ordenaren barruan zeudela eta goian aipatutako 4 familiak duela gutxi batu direla Accipitriformes ordena berriaren barruan. Itxura aldetik nolabaiteko antzekotasunak izan arren, gaur egun onartzen da filogenetikoki nahiko urrun daudela 2 ordena hauek, analisi molekularrek erakutsi dutelako Falconidae familiako kideak genetikoki hurbilago daudela papagai eta loroetatik Accipitriformeetatik baino.

Hala ere, Iribarrek 2001ean batera aztertu eta izendatu zituen 2 ordena hauek, akzipitriformeak eta falkoniformeak, guk ere halaxe egingo dugu txosten honetan, nahiz eta egungo taxonomiara egokituta.

Ordena honetako euskarazko izenen artean tradizio handiko generoideak aurkituko ditugu, bai ondare tradizionalakoak (arrano, sai, miru, ilaintsa, ugatz, zapelatz...) zein mailegu zahar eta berriak (zopilote, kondor, elano, aztore...), azken hamarkadetan sortutako beste zenbait izen generikorekin batera (liztorjale, sugezale, itsas arrano eta abar).

Generoak eta izen generikoak aztertuz gero, hauxe da ordena honetan euskaraz ditugun izenen laburpena, hurrenkera taxonomikoa jarraituz. Salbuespenen bat salbu, Iribarrek bere lanean jasotako generoideak erabili ditugu. Aldaketaren bat egin dugunetan iruzkina gehitu dugu.

Cathartidae

- **kondor:**
 - *Gymnogyps* eta *Vultur* generoak. Inguruko hizkuntzetan ere batasuna dago: cóndor ES, condor FR, còndor CA, condor EN, Kondor DE, condor IT.
- **zopilote:**
 - *Sarcoramphus*, *Coragyps* eta *Cathartes* generoak. Gaztelaniaz eta katalanez bezala (FR urubu eta sarcoramphé, EN vulture, DE Geier, IT avvoltoio). Iribarrek *zopilote* proposatu zuen *Cathartes* generoko espezie batzuentzat eta *sai* beste batzuentzat, baina iruditzen zaigu egokiagoa dela *Cathartidae* familiako kide guztiei izen berbera eta zehatza ematea eta horretarako Ameriketako euren jatorrizko lurraldeetan erabiltzen den *zopilote* izena lehenestea, *sai* generikoa Eurafraziako Aegypiniinae eta Gypaetinae subfamiliarentzat utzita.

Sagittariidae

- **idazkari:**
 - *Sagittarius* generoa (espezie bakarra). Inguruko hizkuntzetan ere batasuna dago: secretario ES, sagittaire FR, secretari CA, secretarybird EN, Sekretär DE, segretario IT. Familia eta genero monotipikoa denez, ez du espezifikatzaile behar (*hegazti idazkari* ere izendatu izan da azken urteotan).

Pandionidae

- **arrano arrantzale:**
 - *Pandion* generoa (espezie bakarra). Águila pescadora ES, balbuzard FR, àguila pescadora CA, osprey EN, Fischadler DE, falco pescatore IT.

Accipitridae

- **elano:**
 - Elaninae subfamiliako genero guztiak osorik (*Elanus*, *Gampsonyx* eta *Chelictinia* generoak) eta estuki lotutako *Elanoides* generoko kideak. Inguruko hizkuntzetan ere antzera (elanio ES, élanion FR, elani CA; gainera, kite EN eta nibbio IT).
 - Baita *Ictinia* generoa ere, taxonomikoki urrun egon arren itxuraz oso antzekoa dena.
- **zemaitez:**
 - Polyboroidinae subfamiliako genero bakarreko 2 espezieak (*Polyboroides* generoa). Talde berezia da eta inguruko hizkuntzetan ez dago batasun handirik (aguilucho ES, gymnogène FR, arpella CA, harrier-Hawk EN, Weih DE, gimnogene IT); Iribarrek proposatutako *zemaitez* onartu dugu, jatorria ezagutzen ez dugun arren.
- **sai:**
 - Aegypiniinae eta Gypaetinae subfamilietakako generoak (*Gyps*, *Sarcogyps*, *Trigonoceps*, *Aegyptius*, *Torgos*, *Necrosyrtes*, *Neophron* eta *Gypohierax*). Inguruko hizkuntzetan ere oso modu bateratuan izendatzen dira genero hauek: buitres ES, vautour FR, voltor CA, vulture EN, Geier DE, avvoltoio IT (salbuespen

dira *Neophron* eta *Necrosyrtes* generoetako zenbait espezie, izen bereziak dituztenak, esaterako, alimoche ES, percnoptère FR, aufrany CA, capovaccaio IT eta abar).

- **ugatz:**

- *Gypaetus* genero monotipikoa (*Gypaetus barbatus*). Dena dela, espezie hau aurrekoekin lotuta dago, Gypaetinae subfamiliako kidea da, eta *sai gorri* eta *sai hezurjale* moduko izenak ere erabili izan dira espezie hau izendatzeko eta ez zaizkigu desegoki iruditzen. Sinonimo gisa agertzen dira aurreko lanetan eta guk ere halaxe gorde ditugu.

- **miru:**

- *Milvus* generoa (milano ES, Milan FR, milà CA, kite EN, milan DE, nibbio IT).
- Perninae subfamiliako *Leptodon*, *Chondrohierax*, *Lophoictinia* eta *Hamirostra* generoetako kideak. Filogenetikoki urrun egon arren eta urkila-buztanik izan ez arren, beste hizkuntza batzuetan ere, neurri handi batean, historikoki berdin izendatu diren genero hauetako kideak eta euskaraz ere halaxe proposatu zuen Iribarrek.

- **liztorjale:**

- Perninae subfamiliako *Pernis* eta *Helicopernis* generoak (abejero ES, bondrée FR, aligot vesper CA, honey buzzard EN, Wespenbussard DE, falco IT). Iribarrek *zapelatz liztorjale* generoidea darabil, baina munduko liztorjale guztiak aztertu eta osorik izendatzean, *zapelatz* generikoak garrantzia galtzen du eta nahikoa iruditzen zaigu *liztorjale* baliatzea generoide gisa. Lehendik ere proposatu eta erabili izan da horrela eta halaxe hobetsiko dugu. Kontuan izan behar da espezie hauek oso urruti daudela filogenetikoki benetako *zapelatz*etatik (Buteoninae subfamilia). Gainera, horrela *zapelatz* generoidea kasu zehatzagoetarako utzi dezakegu (*Buteo* generotik hurbilago dauden genero eta espezieentzat, aipatutako Buteoninae subfamiliakoak) eta ez edozein harraparirentzat, izen arrunt espezifikoez eskatzen duten zehaztasuna areagotuz eta bermatuz, eta taxonomiari behar duen pisua emanez.

- **baza:**

- *Aviceda* generoa, inguruko hizkuntza gehienetan bezalaxe (ES, FR, CA, EN, IT eta PT, adibidez).

- **arrano:**

- Aquilinae subfamiliako genero eta espezie guztiak (*Aquila*, *Stephanoaetus*, *Nisaetus*, *Spizaetus*, *Lophotriorchis*, *Polemaetus*, *Lophaetus*, *Ictinaetus*, *Clanga* eta *Hieraetus* generoetako kide guztiak). Inguruko hizkuntzetan ere genero hauek modu bateratuan izendatzen dituzte: águila ES, aigle FR, àguila CA, eagle EN, Adler DE, aquila IT.
- Baita taxonomikoki urrunago dauden *Eutriorchis*, *Pitecophaga*, *Terathopius* eta *Harpyopsis* generoetako kide guztiak ere. Inguruko hizkuntzetan ere, oro har, izen berbera jasotzen dute; *arrano*, alegia.
- *Macheiramphus* genero monotipikoa. Iribarrek *miru* izendatu zuen, ziurrenik beste hizkuntzaren baten eredia jarraitu zelako, guk *arrano* proposatu dugu, filogenetikoki nabarmen baita *arranoa* (Harpiinae subfamilia) eta ez *mirua*.

- **(arrano) sugezale:**
 - Circaetinae subfamiliako genero eta espezie gehienak (*Circaetus*, *Dryotriorchis* eta *Spilornis* generoetako kide guztiak), inguruko hizkuntza guztietan bezalatsu (culebrera ES, circaète/Serpentaire FR, àguila serpera CA, serpent eagle EN, Adler DE, serpentario IT). Bere ohitura etologikoengatik izendapen honetatik kanpo geratzen da subfamilia honetako laugarren generoko espezie bakarra, *Pithecophaga jefferyi*, nahiz eta izenak egitura eta itxura berbera duen (*arrano tximinozale*).
- **harpia:**
 - Harpiinae subfamiliako *Morphnus* eta *Harpia* generoetako kideak (arpia ES, harpie FR, harpia CA, harpy eagle EN, Harpyie DE, arpia IT).
- **ilaintsa:**
 - *Harpagus* generoko kideak (Harpaginae subfamilia bereziko generoa; 2 espezie). Inguruko hizkuntza batzuetan *miru* izendatzen dituzte txori hauek (milano ES, milà CA, kite EN, nibbio IT). Hala ere, “benetako” beste miruetatik nahiko urruti daude eta iruditzen zaigu baliabide egokia izan daitekeela miruaren beste sinonimo bat erabiltzea talde hau izendatzeko. Horretarako, ekialdeko euskalkietan orokorra den eta Hiztegi Batuan onartuta dagoen *ilaintsa* proposatzen dugu. Ondare tradizionalako baliabidea izanik, uste dugu izen arruntek behar duten zehaztasun eta espezifikitatea areagotzen duela eta ondare zaharreko termino eta izenak berreskuratzeko bidean erabaki egokia dela.
- **gabirai:**
 - *Accipiter* generoko espezie guztiak eta *Tachyspiza* generoko 18 espezie (gainontzekoak *aztore* dira). Salbuespenak salbuespen, inguruko hizkuntzetan horrela izendatzen dira aipatutako talde horietako espezieak: gavilán ES, épervier FR, esparver CA, sparrowhawk EN, Sperber DE, sparviere IT.
 - Baita Harpáginae subfamiliako *Microspizias* generoko kideak ere, taxonomikoki beste talde batekoak izan arren, fisikoki gabiraie itxura dutenak eta inguruko hizkuntzetan ere halaxe izendatzen direnak.
- **aztore:**
 - Accipitrinae subfamiliako genero gehienetako espezie guztiak (*Kaupifalco*, *Micronisus*, *Melierax*, *Erythrotriorchis*, *Lophospiza*, *Aerospiza*, *Astur* eta *Megatriorchis* generoak). Baita *Tachyspiza* generoko 9 espezie ere. Salbuespenak salbuespen, inguruko hizkuntzetan horrela izendatzen dira talde hauetako espezieak: azor ES, autour FR, astor CA, goshawk EN, Habicht DE, aztore IT).
- **mirotz:**
 - *Circus* genero osoa (aguilucho ES, busard FR, arpella CA, harrier EN, Weihe DE, albanella IT).
- **itsas arrano:**
 - *Haliaeetus* eta *Icthyophaga* generoetako kide guztiak (pigargo ES, pygargue FR, pigarg CA, Sea Eagle EN, Seeadler DE, aquila pescatrice IT).

- **arraipardo:**

- *Butastur*, *Busarellus*, *Rostrhamus* eta *Helicolestes* generoetako kide guztiak. Estuki lotuta deuden 4 genero berezi dira. Filogenetikoki aztoreen eta zapelatzaren artean kokatuta daude eta itxuraz beste genero batzuen arteko ezaugarri nahasiak dituzte. *Butastur* genero-izenak ere horixe iradokitzen du, gabiraien eta zapelatzaren artean daudela genero horietako kideak. Iribarrek *zapelatz* eta *miru* erabili zituen talde hauetako kideak izendatzeko (espezie batzuk *zapelatz*, beste batzuk *miru*) eta inguruko hizkuntzetan ere ez dago orobateko batasunik, esate baterako, busardo vs. caracolo (ES), busautour vs. milan vs. buse (FR), aligot vs. caragoler (CA), buzzard vs. hawk vs. kite (EN), poiana vs. nibbio (IT) eta abar. Uste dugu euskarazko *arraipardo* izen egokia izan daitekeela 4 genero hauetako espezieak izendatzeko, benetako zapelatz eta miruetatik bereiztuz, eta talde honen berezitasuna azpimarratzeko, izen arrunt espezifiko eta zehatzagoak sortuz. Euskaltzaindiaren Orotariko Hiztegia jasota dator *arraipardo*.

- **zapelatz:**

- Buteoninae subfamiliako genero eta espezie gehien-gehienak. *Buteo* genero osoa eta berekin estuki lotutako *Geranospiza*, *Cryptoleucopteryx*, *Buteogallus*, *Morphnarchus*, *Rupornis*, *Parabuteo*, *Geranoaetus*, *Pseudastur*, *Leucopternis* eta *Bermuteo* generoetako kide guztiak (busardo ES, buse FR, aligot CA, buzzard EN, Bussard DE, poiana IT).

Falconiformes ordenako izen generikoak

Falconiformes ordena hegazti eguneko harrapari txiki eta ertainen taldea da. Ordena honetan gaur egun familia bakarra onartzen da, Falconidae familia (65 espezie). Talde honen ezaugarri nagusia moko sendo eta kakoduna da. Gorputz aerodinamikoa dute, hego zorrotz eta luzeak, eta isats luzea edo ertaina.

Munduko bazter guztietan aurki daitezke, Antarktikan izan ezik eta oso habitat desberdinetan bizi dira: basamortuetan, oihan tropikaletan, tundran, sabanetan eta baita hiriguneetan ere. Espezie batzuk oso ondo egokitu dira giza inguruneetara eta eraikin altuetan edo zubietan egiten dituzte habiak.

Hegalari apartak dira eta, elikadurari dagokionez, ehiztariak. Espezie handiek hegazti ertainak ehizatzen dituzte airean; espezie txikienek nagusiki intsektuak, karraskariak eta narrastiak jaten dituzte, hegazti txikiez gain.

Falconiformes ordena hegazti-talde zabalenetakoa zen duela gutxira arte eta eguneko harrapari guztiak biltzen zituen bere baitan. Haatik, azken 20 urteotan aldaketa sakonak izan dira talde honen filogenia eta taxonomian. Izan ere, analisi molekularrek erakutsi dute Falconidae familia honetako kideak (belatzak eta karakarak) genetikoki hurbilago daudela papagai eta enparaueetatik (Psittaciformes ordena) Accipitriformes ordenatik baino. Horren ondorioz, gaur egun Falconiformes ordenak Falconidae familia bakarrik biltzen du eta gainontzeko harrapari handiak (arranoak, saiak, gabiraiak eta abar) Accipitriformes ordenean sailkatzen dira.

Generoak eta izen generikoak aztertuz gero, hauxe da laburpena, 2001ean Iribarrek egindako proposamenean azaldu bezala eta hurrenkera taxonomikoa jarraituz:

Falconidae

- **karakara:**
 - *Daptrius*, *Ibycter*, *Phalcoboenus*, *Caracara* eta *Milvago* generoetako kideak, inguruko hizkuntza guztietan bezala (ES, FR, CA, EN, DE eta IT).
- **belatz:**
 - *Falco* eta *Herpethos* generoetako kideak. Salbuespenak salbuespen, inguruko hizkuntzetan honela izendatzen dira talde horietako espezieak: halcón ES, faucon FR, falcó CA, falcon EN, falke DE, falco IT.
- **baso-belatz:**
 - *Micrastur* generoko espezie guztiak. Salbuespenak salbuespen, inguruko hizkuntzetan honela izendatzen dira talde horietako espezieak: halcón montés ES, carnifex FR, falcó selvàtic CA, forest falcon EN, Waldfalke DE, falco di foresta IT.
- **belatzxo:**
 - *Spizapteryx*, *Polihierax*, *Microhierax* eta *Neohierax* generoetako kide guztiak. Salbuespenak salbuespen, inguruko hizkuntzetan honela izendatzen dira talde horietako espezieak: halconcito ES, fauconnet FR, falconet CA, falconet EN, Zwergfalke DE, falchetto IT).

Accipitriformes eta Falconiformes ordenetako espezieen euskarazko izen arruntak

Gorago esan bezala, Accipitriformes eta Falconiformes ordenetako munduko espezie guztien euskarazko izenak zerrendatuko ditugu ondorengo orrialdeetan, zuzenean Iribarren 2001eko proposamenetatik jasota. Izen zientifikoak eta sailkapen sistematikoa IOC 14.2 (2024) zerrenda ofizialera egokitu ditugu eta espezie jakin batzuetan moldaketaren bat edo izen berriren bat proposatu behar izan dugu, gehienetan azken 25 urte hauetako azterketa molekularren ondorioz gertatu diren eguneratze taxonomikoetara egokitzeko.

Accipitriformes

Cathartidae

- *Gymnogyps californianus*: **kondor kaliforniar**
- *Sarcoramphus papa*: **zopilote errege**
- *Vultur gryphus*: **kondor andetar**
- *Coragyps atratus*: **zopilote beltz**
- *Cathartes aura*: **zopilote indioilar**
- *Cathartes burrovianus*: **sabana-zopilote**
- *Cathartes melambrotus*: **baso-zopilote** (Iribarrek *sai* generikoa proposatu zuen azkenengo 2 espezie horientzat, baina guk *zopilote* hobetsi dugu. Zopilote náhuatl hizkuntzako *tzopilotl* izenetik dator eta erabilera orokorrekoa da Ameriketako talde honetako kideak izendatzeko orduan, gaztelaniaz ez ezik, baita beste hainbat hizkuntzatan ere. Uste dugu izen egokiagoa dela katartidoak osotasunean aztertu eta izendatzea, horretarako *zopilote* generikoa erabilia, eta *sai* izena Eurafraziako Aegypiniinae eta Gypaetinae subfamilietako generoentzat gordetzea).

Sagittariidae

- *Sagittarius serpentarius*: (hegazti) **idazkari**

Pandionidae

- *Pandion haliaetus*: **arrano arrantzale**

Accipitridae

- *Elanus caeruleus*: **elano urdin**
- *Elanus axillaris*: **elano australiar**
- *Elanus leucurus*: **elano buztanzuri**
- *Elanus scriptus*: **elano hizkidun**
- *Gampsonyx swainsonii*: **perla-elano**
- *Chelictinia riocourii*: **elano enara-buztan**
- *Polyboroides typus*: **zemaitz arrunt**
- *Polyboroides radiatus*: **zemaitz malgaxe**

- *Gypohierax angolensis*: **palmondo-sai**
- *Gypaetus barbatus*: **ugatz**
- *Neophron percnopterus*: **sai zuri**
- *Eutriorchis astur*: **arrano narrastizale** (Iribarrek "madagaskartar" espezifikatzailea erantsi zion, baina trinomio horrek ez du zentzu handirik monotipikoa izanik eta forma ximpleagora jo dugu, oinarri berbera utzita).
- *Leptodon cayanensis*: **miru burugris**
- *Leptodon forbesi*: **miru idunzuri**
- *Chondrohierax uncinatus*: **miru amu-moko**
- *Chondrohierax wilsonii*: **miru kubatar** (Splita eta espezie berria; Iribarrek ez dakar)
- *Pernis apivorus*: **liztorjale eurasiar**
- *Pernis ptilorhynchus*: **liztorjale ekialdetar**
- *Pernis celebensis*: **liztorjale celebstar**
- *Pernis steerei*: **liztorjale filipinar**
- *Elanoides forficatus*: **elano miru-buztan**
- *Lophoictinia isura*: **miru buztankarratu**
- *Hamirostra melanosternon*: **miru paparbeltz**
- *Aviceda cuculoides*: **baza afrikar**
- *Aviceda madagascariensis*: **baza malgaxe** (*malgaxe* eta *madagaskartar* espezifikatzailea sinonimoak ditugu euskaraz; *malgaxe* hobetsi dugu orain arte, bateratze aldera)
- *Aviceda jerdoni*: **Jerdon baza**
- *Aviceda subcristata*: **baza mottodun**
- *Aviceda leuphotes*: **baza beltz**
- *Henicopernis longicauda*: **liztorjale buztanluze**
- *Henicopernis infuscatus*: **liztorjale beltz**
- *Necrosyrtes monachus*: **sai txanodun**
- *Gyps africanus*: **sai gibelzuri afrikar**
- *Gyps bengalensis*: **sai gibelzuri bengalar**
- *Gyps indicus*: **sai mokoluze**
- *Gyps tenuirostris*: **sai mokofin** (Splita eta espezie berria; Iribarrek ez dakar)
- *Gyps rueppelli*: **Rüppell sai**
- *Gyps himalayensis*: **sai himalaiar**
- *Gyps fulvus*: **sai arre**
- *Gyps coprotheres*: **Lurmuturreko sai**
- *Sarcogyps calvus*: **sai burugorri**
- *Trigonoceps occipitalis*: **sai buruzuri**
- *Aegyptius monachus*: **sai beltz**
- *Torgos tracheliotos*: **sai belarridun**
- *Spilornis cheela*: **sugezale gandordun**
- *Spilornis klossi*: **sugezale nikobartar**
- *Spilornis kinabaluensis*: **sugezale kinabalutar**
- *Spilornis rufipectus*: **sugezale celebstar**
- *Spilornis holospilus*: **sugezale filipinar**
- *Spilornis elgini*: **sugezale andamandar**
- *Pithecophaga jefferyi*: **arrano tximinozale**

- *Circaetus gallicus*: **sugezale eurasiar**
- *Circaetus beaudouini*: **Beaudouin sugezale**
- *Circaetus pectoralis*: **sugezale bularbeltz**
- *Circaetus cinereus*: **sugezale arre**
- *Circaetus fasciolatus*: **sugezale marradun**
- *Circaetus cinerascens*: **sugezale hauskara**
- *Dryotriorchis spectabilis*: **sugezale kongoar**
- *Terathopius ecaudatus*: **arrano akrobata**
- *Macheiramphus alcinus*: **arrano saguzarzale** (Iribarrek *miru saguzarjale* dakar, baina arranoen taldera ekarri dugu, itxuraz eta filogenetikoki nabarmen baita arranoa eta ez mirua. Bestetik, bere taldekide diren arrano sugezaleen eta arrano tximinozalearen bidetik, *saguzarzale* hobetsi dugu, Iribarrek proposatutako *saguzarjaleren* ordeztu).
- *Harpyopsis novaeguineae*: **arrano gineaberritar**
- *Morphnus guianensis*: **harpia txiki**
- *Harpia harpyja*: **harpia handi**
- *Stephanoaetus coronatus*: **arrano koroadun**
- *Nisaetus kelaarti*: **arrano zeilandar** (*N. nipalensis* splita; Iribarrek ez dakar)
- *Nisaetus nanus*: **Wallace arrano** (Iribarrek *Spizaetus nanus* dakar)
- *Nisaetus nipalensis*: **mendi-arrano** (Iribarrek *Spizaetus nipalensis* dakar)
- *Nisaetus alboniger*: **Blyth arrano** (Iribarrek *Spizaetus alboniger* dakar)
- *Nisaetus bartelsi*: **arrano javatar** (Iribarrek *Spizaetus bartelsi* dakar)
- *Nisaetus lanceolatus*: **arrano celebstar** (Iribarrek *Spizaetus lanceolatus* dakar)
- *Nisaetus pinskeri*: **Pinsker arrano** (*N. philippensis* splita; Iribarrek ez dakar)
- *Nisaetus philippensis*: **arrano filipinar** (Iribarrek *Spizaetus philippensis* dakar)
- *Nisaetus cirrhatus*: **arrano aldakor** (Iribarrek *Spizaetus cirrhatus* dakar)
- *Nisaetus floris*: **arrano florestar** (*N. cirrhatus* splita; Iribarrek ez dakar)
- *Spizaetus tyrannus*: **arrano tirano**
- *Spizaetus melanoleucus*: **arrano zuri-beltz** (Iribarrek *Spizastur melanoleucus* dakar)
- *Spizaetus ornatus*: **arrano apain**
- *Spizaetus isidori*: **Isidoro arrano** (Iribarrek *Oroaetus isidori* dakar)
- *Lophotriorchis kienerii*: **arrano sabelgorri** (Iribarrek *Hieraaetus kienerii* dakar)
- *Polemaetus bellicosus*: **arrano gudari**
- *Lophaetus occipitalis*: **arrano mottodun**
- *Ictinaetus malaiensis*: **arrano malaiaiar** (Iribarrek "arrano beltz asiatar" dakar, baina gure arrano beltzarekin talka egiten du eta *malaiar* izendatu dugu, izen zientifikoa eta beste hizkuntza batzuk oinarri hartuta).
- *Clanga hastata*: **arrano indiar** (*C. pomarina* splita; Iribarrek ez dakar)
- *Clanga pomarina*: **arrano pomeraniar** (Iribarrek *Aquila pomarina* dakar)
- *Clanga clanga*: **arrano pikart** (Iribarrek *Aquila clanga* dakar)
- *Hieraaetus wahlbergi*: **Wahlberg arrano** (Iribarrek *Aquila wahlbergi* dakar)
- *Hieraaetus ayresii*: **Ayres arrano**
- *Hieraaetus pennatus*: **arrano txiki**
- *Hieraaetus weiskei*: **arrano papuar** (*H. morphnoides* splita; Iribarrek ez dakar)
- *Hieraaetus morphnoides*: **arrano hankazuri**
- *Aquila nipalensis*: **estepa-arrano**
- *Aquila rapax*: **arrano nagi**

- *Aquila adalberti*: **eguzki-arrano iberiar**
- *Aquila heliaca*: **eguzki-arrano eurasiar** (Iribarrek *eguzki-arrano* soila dakar, baina beharrezko du espezifikatzailea, bere kide *Aquila adalberti*-tik bereizteko).
- *Aquila chrysaetos*: **arrano beltz**
- *Aquila africana*: **Cassin arrano** (Iribarrek *Spizaetus africana* dakar)
- *Aquila audax*: **arrano ziri-buztan**
- *Aquila gurneyi*: **Gurney arrano**
- *Aquila verreauxii*: **Verreaux arrano**
- *Aquila fasciata*: **Bonelli arrano**
- *Aquila spilogaster*: **arrano afrikar** (Iribarrek *Hieraaetus spilogaster* dakar)
- *Harpagus bidentatus*: **ilaintsa horzbiko**
- *Harpagus diodon*: **ilaintsa iztergorri**
- *Kaupifalco monogrammicus*: **aztore muskerzale** (Iribarrek *zapelatz paparzuri* dakar, baina ez da *zapelatz* bat, aztoreen Accipitrinae subfamiliako kidea baizik; horregatik hobetsi dugu aztore generikoa, taldearen koherentzia eta batasunarengatik).
- *Micronisus gabar*: **gabar aztore** (Iribarrek *aztore gabar* dakar; zuzendu egin dugu)
- *Melierax metabates*: **aztore ilun**
- *Melierax poliopterus*: **aztore somaliar**
- *Melierax canorus*: **aztore argi**
- *Urotriorchis macrourus*: **aztore buztanluze**
- *Erythrotriorchis buergersi*: **Bürgers aztore**
- *Erythrotriorchis radiatus*: **aztore gorri**
- *Microspizias superciliosus*: **gabirai nano** (Iribarrek *Accipiter superciliosus* dakar)
- *Microspizias collaris*: **gabirai lepokoerdidun** (Iribarrek *Accipiter collaris* dakar)
- *Lophospiza trivirgata*: **aztore mottodun** (Iribarrek *Accipiter trivirgatus* dakar)
- *Lophospiza griseiceps*: **aztore celebstar** (Iribarrek *Accipiter griseiceps* dakar)
- *Aerospiza toussenelii*: **Toussenel aztore** (Iribarrek *Accipiter toussenelii* dakar)
- *Aerospiza tachiro*: **tachiro aztore** (Iribarrek *Accipiter tachiro* dakar)
- *Aerospiza castanilius*: **aztore saihesgorri** (Iribarrek *Accipiter castanilius* dakar eta *gabirai saihesgorri*. Genero hauen berrantolaketaren ondorioz egokiagoa da *aztore* izendapena, bere generoko guztiekin bat eginez eta talde mailako batasunari eutsiz)
- *Tachyspiza butleri*: **gabirai nikobartar** (Iribarrek egungo *Tachyspiza* genero berri honetako kide guztiak *Accipiter* generoan sailkatuta dakartza)
- *Tachyspiza badia*: **shikra gabirai** (Iribarrek *shrika* (sic) dakar; zuzendu egin dugu. Hindierako hitza da, urdueratik jaso, eta ehiztari esan nahi du)
- *Tachyspiza brevipes*: **gabirai hankamotz**
- *Tachyspiza soloensis*: **gabirai igelzale**
- *Tachyspiza francesiae*: **Frances gabirai**
- *Tachyspiza trinotata*: **gabirai buztanpikart**
- *Tachyspiza novaehollandiae*: **aztore gris** (Splita, espezie berria; Iribarrek ez dakar)
- *Tachyspiza hiogaster*: **aztore aldakor** (Splita, espezie berria; Iribarrek ez dakar)
- *Tachyspiza fasciata*: **aztore australiar**
- *Tachyspiza melanochlamys*: **aztore mantubeltz**
- *Tachyspiza albogularis*: **aztore pinto**
- *Tachyspiza haplochroa*: **Kaledonia Berriko aztore**
- *Tachyspiza rufitorques*: **aztore fijitar**

- *Tachyspiza henicogramma*: **aztore molukar**
- *Tachyspiza luteoschistacea*: **aztore bizkargris**
- *Tachyspiza imitator*: **gabirai imitatzaile**
- *Tachyspiza poliocephala*: **gabirai burugris txiki**
- *Tachyspiza princeps*: **gabirai burugris handi** (*T. poliocephala* splita; Iribarrek ez dakar. Bi espezieak oso antzekoak dira, baina *T. princeps* aurrekoa baino nabarmen handiagoa da).
- *Tachyspiza erythropus*: **gabirai iztergorri**
- *Tachyspiza minulla*: **gabirai txiki** (Iribarrek *gabirai afrikar txiki* proposatu zuen; trinomioa soildu dugu, ez baitago *gabirai afrikar* edo *gabirai txiki* deitzen den beste espezierik).
- *Tachyspiza gularis*: **gabirai japoniar**
- *Tachyspiza virgata*: **besra gabirai**
- *Tachyspiza nanus*: **gabirai celebstar**
- *Tachyspiza erythrauchen*: **gabirai lepagorri**
- *Tachyspiza cirrocephala*: **gabirai lepokodun**
- *Tachyspiza brachyura*: **Britainia Berriko gabirai** (Iribarrek *Bretainia Berriko* (sic) dakar, baina uhartearen izen arautua Britainia Berria da).
- *Tachyspiza rhodogaster*: **gabirai bulargorri**
- *Accipiter madagascariensis*: **gabirai malgaxe**
- *Accipiter ovampensis*: **gabirai ovamboar**
- *Accipiter nisus*: **gabirai arrunt**
- *Accipiter rufiventris*: **gabirai papargorri**
- *Accipiter poliogaster*: **gabirai sabelgris** (Iribarrek *aztore sabelgris* dakar, baina Accipitrinae subfamiliaren berrantolaketa taxonomikoaren ostean, askoz egokiagoa da espezie hau gabiraien taldera eramatea, genero honetako gainontzeko kide guztiak bezalaxe).
- *Accipiter striatus*: **gabirai amerikar**
- *Accipiter chionogaster*: **gabirai sabelzuri**
- *Accipiter ventralis*: **gabirai andetar**
- *Accipiter erythronemius*: **gabirai gorraile**
- *Astur cooperii*: **Cooper aztore**
- *Astur gundlachi*: **aztore kubatar**
- *Astur bicolor*: **aztore kolorebiko** (Iribarrek *kolore biko* (sic) dakar; zuzendu egin dugu).
- *Astur chilensis*: **aztore txiletar**
- *Astur melanoleucus*: **aztore beltz**
- *Astur henstii*: **aztore malgaxe** (Iribarrek *Hernst aztore* dakar, baina beste hizkuntza batzuetako ereduak ikusita eta eponimoak saiheste aldera, *aztore malgaxe* izendatzea proposatzen dugu, Iribarren proposamena ere sinonimo gisa uzten dugun arren).
- *Astur gentilis*: **aztore eurasiar** (Iribarrek espezifikatzailerik gabe aurkezten du. 2023. urteko splitaren ondoren, eta talde osoa izendatzeko proposamena aurkezterakoan, *eurasiar* espezifikatzailea eranstea proposatzen dugu, *A. atricapillus* espezie kidea *iparramerikar* izan daitekeelarik).
- *Astur atricapillus*: **aztore iparramerikar** (*A. gentilis* splita; Iribarrek ez dakar)
- *Astur meyerianus*: **Meyer aztore**
- *Megatriorchis doriae*: **Doria aztore**

- *Circus aeruginosus*: **zingira-mirotz eurasiar** (Iribarrek ez du espezifikatzailerik proposatzen, baina mundu mailako ikuspegia aztertu ondoren derrigorrezko du nolabaiteko espezifikatzailea, bere generoko gainontzeko espezieek bezala).
- *Circus spilonotus*: **zingira-mirotz mantxuriar** (Iribarrek *ekialdeko zingira-mirotz* proposatu zuen, baina espezifikatzaile hori zabalegia da eta ekialdeko/mendebaldeko bikoteak spliten eraginez sortutako espezie berrietako trinomioetarako erabiltzen ditugu gehienbat. Hori dela eta, bere hedadura geografikoa aztertuta, *mantxuriar* espezifikatzailea hobetsi dugu).
- *Circus spillothorax*: **zingira-mirotz papuar** (*C. spilonotus* splita; Iribarrek ez dakar)
- *Circus approximans*: **zingira-mirotz ozeaniar**
- *Circus ranivorus*: **zingira-mirotz igelzale**
- *Circus maillardi*: **Reuniongo mirotz**
- *Circus macroscelus*: **mirotz malgaxe** (*C. maillardi* splita; Iribarrek ez dakar)
- *Circus buffoni*: **mirotz hegaluze**
- *Circus assimilis*: **mirotz pikart**
- *Circus maurus*: **mirotz beltz**
- *Circus cyaneus*: **mirotz zuri eurasiar**
- *Circus hudsonius*: **mirotz zuri iparramerikar**
- *Circus cinereus*: **mirotz nabar**
- *Circus macrourus*: **mirotz lepazuri**
- *Circus melanoleucos*: **mirotz pinto**
- *Circus pygargus*: **mirotz urdin**
- *Milvus milvus*: **miru gorri**
- *Milvus migrans*: **miru beltz**
- *Milvus aegyptius*: **miru mokohori** (Splita eta espezie berria; Iribarrek ez dakar)
- *Haliaeetus sphenurus*: **miru txistulari**
- *Haliaeetus indus*: **miru buruzuri** (Iribarrek *brahman miru* dakar, baina izena ez da batere argigarria eta deskriptiboago baten alde egin dugu, inguruko beste hizkuntza batzuetako ereduak jarraituta).
- *Haliaeetus pelagicus*: **itsas arrano mokohandi**
- *Haliaeetus leucoryphus*: **Pallas itsas arrano**
- *Haliaeetus albicilla*: **itsas arrano buztanzuri**
- *Haliaeetus leucocephalus*: **itsas arrano buruzuri**
- *Icthyophaga leucogaster*: **itsas arrano sabelzuri** (Iribarrek *Haliaeetus leucogaster* dakar)
- *Icthyophaga sanfordi*: **Sanford itsas arrano** (Iribarrek *Haliaeetus sanfordi* dakar)
- *Icthyophaga vocifer*: **itsas arrano oihulari** (Iribarrek *Haliaeetus vocifer* dakar)
- *Icthyophaga vociferoides*: **itsas arrano malgaxe** (Iribarrek *Haliaeetus vociferoides* dakar)
- *Icthyophaga humilis*: **itsas arrano txiki**
- *Icthyophaga ichthyaetus*: **itsas arrano burugris**
- *Butastur rufipennis*: **arraipardo matxinsaltzale** (Iribarrek *zapelatz* eta *miru* izendatu zituen Butastur, Busarellus, Rostrhamus eta Helicolestes generoetako kideak, baina guk *arraipardo* izendatzeko proposamena egin dugu, arrazoi taxonomiko eta terminologikoengatik. Generikoen gaia azaldu dugun aurreko puntuan aurkituko dituzue azalpen zabal eta zehatzagoak).

- *Butastur teesa*: **arraipardo begizuri**
- *Butastur liventer*: **arraipardo hegalgorri**
- *Butastur indicus*: **arraipardo masailgris**
- *Ictinia mississippiensis*: **elano mississippiar**
- *Ictinia plumbea*: **elano berunkara**
- *Busarellus nigricollis*: **arraipardo lepabeltz**
- *Rostrhamus sociabilis*: **arraipardo barraskilozale**
- *Helicolestes hamatus*: **arraipardo mokoluze**
- *Geranospiza caerulescens*: **zapelatz hankaluze**
- *Cryptoleucopteryx plumbea*: **zapelatz berunkara** (Iribarrek *Leucopternis plumbea* dakar)
- *Buteogallus schistaceus*: **zapelatz arbelkara** (Iribarrek *Leucopternis schistaceus* dakar)
- *Buteogallus anthracinus*: **zapelatz musuzuri**
- *Buteogallus gundlachii*: **zapelatz kubatar** (*B. anthracinus* splita; Iribarrek ez dakar)
- *Buteogallus aequinoctialis*: **zapelatz sugartsu**
- *Buteogallus meridionalis*: **sabana-zapelatz**
- *Buteogallus lacernulatus*: **zapelatz lepazuri** (Iribarrek *Leucopternis lacernulatus* dakar)
- *Buteogallus urubitinga*: **urubitinga zapelatz**
- *Buteogallus solitarius*: **zapelatz bakarti** (*B. urubitinga* splita; Iribarrek ez dakar)
- *Buteogallus coronatus*: **chacoko zapelatz** (*B. urubitinga* splita; Iribarrek ez dakar)
- *Morphnarchus princeps*: **zapelatz marradun** (Iribarrek *Leucopternis princeps* dakar)
- *Rupornis magnirostris*: **bide-zapelatz**
- *Parabuteo unicinctus*: **Harris zapelatz**
- *Parabuteo leucorrhous*: **zapelatz ipurtzuri**
- *Geranoaetus albicaudatus*: **zapelatz buztanzuri** (Iribarrek *Buteo albicaudatus* dakar)
- *Geranoaetus polyosoma*: **zapelatz aldakor** (*G. albicaudatus* splita; Iribarrek ez dakar)
- *Geranoaetus melanoleucus*: **zapelatz paparbeltz** (Iribarrek *arrano* izendatu zuen, inguruko beste hizkuntza batzuk kalkatuz, baina gaur egungo taxonomiarekin ez dauka zentzurik, espezie hau Buteoninae subfamiliakoa baita, zapelatz taldekoa zentzu guztietan, eta ez Aquilinae subfamiliako arranoen arteko kide bat)
- *Pseudastur polionotus*: **zapelatz mantudun** (Iribarrek *Leucopternis polionotus* dakar)
- *Pseudastur albicollis*: **zapelatz zuri** (Iribarrek *Leucopternis albicollis* dakar)
- *Pseudastur occidentalis*: **zapelatz bizkargris** (Iribarrek *Leucopternis occidentalis* dakar)
- *Leucopternis semiplumbeus*: **zapelatz erdiberunkara**
- *Leucopternis melanops*: **zapelatz musubeltz**
- *Leucopternis kuhli*: **zapelatz bekainzuri**
- *Bermuteo avivorus*: **zapelatz bermudar**
- *Buteo nitidus*: **hegoaldeko zapelatz hauskara** (*hegoaldeko* gehitu diogu, espezie hau bitan splita delako)
- *Buteo plagiatus*: **iparraldeko zapelatz hauskara** (*B. nitidus* splita; Iribarrek ez dakar)
- *Buteo lineatus*: **zapelatz sorbaldagorri**
- *Buteo ridgwayi*: **Ridgway zapelatz**
- *Buteo platypterus*: **zapelatz hegalzabal**
- *Buteo albigula*: **zapelatz zintzurzuri**
- *Buteo brachyurus*: **zapelatz buztan-motz**
- *Buteo solitarius*: **zapelatz hawaiiar**
- *Buteo swainsoni*: **Swainson zapelatz**

- *Buteo galapagoensis*: **zapelatz galapagoar**
- *Buteo albonotatus*: **zapelatz buztan-marratu** (Iribarrek *buztanmarratu* dakar. Hala ere, beste espezie batean *buztan-motz* proposatu zuen. Horregatik, *buztan-marratu* hobetsi dugu)
- *Buteo jamaicensis*: **zapelatz buztangorri**
- *Buteo ventralis*: **zapelatz patagoniar**
- *Buteo regalis*: **zapelatz herdoiltsu**
- *Buteo lagopus*: **zapelatz galtzadun**
- *Buteo hemilasius*: **zapelatz mongoliar**
- *Buteo japonicus*: **zapelatz japoniar** (*B. buteo* splita; Iribarrek ez dakar)
- *Buteo refectus*: **zapelatz himalaiar** (*B. buteo* splita; Iribarrek ez dakar)
- *Buteo rufinus*: **zapelatz handi**
- *Buteo bannermani*: **Cabo Verdeko zapelatz** (*B. buteo* splita; Iribarrek ez dakar)
- *Buteo socotraensis*: **Sokotrako zapelatz** (*B. buteo* splita; Iribarrek ez dakar)
- *Buteo buteo*: **zapelatz arrunt**
- *Buteo oreophilus*: **mendi-zapelatz**
- *Buteo trizonatus*: **Lurmuturreko zapelatz** (*B. oreophilus* splita; Iribarrek ez dakar)
- *Buteo auguralis*: **zapelatz lepagorri**
- *Buteo brachypterus*: **zapelatz malgaxe**
- *Buteo augur*: **zapelatz azpizuri** (Iribarrek *augur zapelatz* dakar. Pertsona liturgikoak ziren augureak; hortaz zapelatz augure izan beharko litzateke. Dena dela, izen deskriptiboagoa hobetsi dugu, *zapelatz azpizuri*, izen argiagoa eta errazagoa delako eta, gainera, espezie honek baduelako oso ezaugarri nabarmena, bere azpialde zuri deigarria).
- *Buteo rufofuscus*: **zapelatz papargorri** (Iribarrek *txakal zapelatz* dakar, ingelesetik itzulita. Euskaraz ez da batere izen argigarri eta deskriptiboa eta horregatik proposatu dugu *zapelatz papargorri*, izen zientifikotik eta beste hizkuntza batzuen bidetik abiatuta).

Falconiformes

Falconidae

- *Daptrius ater*: **karakara beltz**
- *Ibycter americanus*: **karakara zintzurgorri**
- *Phalcoboenus carunculatus*: **karakara garatxodun**
- *Phalcoboenus megalopterus*: **mendi-karakara**
- *Phalcoboenus albogularis*: **karakara zintzurzuri**
- *Phalcoboenus australis*: **karakara austral**
- *Caracara lutosa*: **Guadalupeko karakara**
- *Caracara plancus*: **karakara mottodun** (Iribarrek *Polyborus plancus* dakar)
- *Milvago chimachima*: **karakara buruzuri**
- *Milvago chimango*: **tximango karakara** (Iribarrek *Chimango karakara* dakar, baina ez da leku-izena, izen onomatopeikoa baizik, eta horregatik hobetsi dugu *tximango karakara*).
- *Herpetotheres cachinnans*: **belatz barrezele**

- *Micrastur ruficollis*: **baso-belatz marradun**
- *Micrastur plumbeus*: **baso-belatz berunkara**
- *Micrastur gilvicollis*: **baso-belatz burugris**
- *Micrastur mintoni*: **baso-belatz musugorri** (*M. gilvicollis* splita; Iribarrek ez dakar)
- *Micrastur mirandollei*: **baso-belatz bizkargris**
- *Micrastur semitorquatus*: **baso-belatz lepokodun** (*M. buckleyi* splita; Iribarrek ez dakar)
- *Micrastur buckleyi*: **Buckley baso-belatz**
- *Spizapteryx circumcincta*: **belatzxo hegalpikart**
- *Polihierax semitorquatus*: **belatzxo afrikar**
- *Microhierax caerulescens*: **belatzxo lepokodun**
- *Microhierax fringillarius*: **belatzxo izterbeltz**
- *Microhierax latifrons*: **belatzxo borneoar**
- *Microhierax erythrogenys*: **belatzxo filipinar**
- *Microhierax melanoleucos*: **belatzxo pinto**
- *Neohierax insignis*: **belatzxo hankahori** (Iribarrek *Polihierax insignis* dakar)
- *Falco naumanni*: **etxe-belatz** (Euskaraz *Nauman belatz* ere erabili izan dugu azkenaldian, baina Iribarren proposamena hobestea erabaki dugu, egokiagoa iruditzen zaigulako).
- *Falco tinnunculus*: **belatz gorri**
- *Falco rupicolus*: **haitz-belatz** (*F. tinnunculus* splita; Iribarrek ez dakar)
- *Falco newtoni*: **belatz malgaxe**
- *Falco punctatus*: **belatz mauriziar**
- *Falco duboisi*: **Reuniongo belatz**
- *Falco araeus*: **belatz seychellear**
- *Falco moluccensis*: **belatz molukar**
- *Falco cenchroides*: **belatz australiar**
- *Falco sparverius*: **belatz amerikar**
- *Falco rupicoloides*: **belatz begizuri**
- *Falco alopex*: **azeri-belatz**
- *Falco ardosiaceus*: **belatz hausgara**
- *Falco dickinsoni*: **Dickinson belatz**
- *Falco zoniventris*: **belatz marradun**
- *Falco chicquera*: **belatz burugorri**
- *Falco vespertinus*: **belatz hankagorri**
- *Falco amurensis*: **belatz mantxuriar**
- *Falco eleonora*: **Eleonora belatz**
- *Falco concolor*: **belatz urdin**
- *Falco femoralis*: **belatz galtzadun**
- *Falco columbarius*: **belatz txiki**
- *Falco rufigularis*: **belatz saguzarzale**
- *Falco deiroleucus*: **belatz bulargorri**
- *Falco subbuteo*: **zuhaitz-belatz eurasiar**
- *Falco cuvierii*: **zuhaitz-belatz afrikar** (Iribarrek *Cuvier belatz* dakar, baina iruditzen zaigu zuhaitz-belatz guztiak izen generiko bakarraren azpian bateratzea koherenteagoa dela, ikuspegi intralinguistiko eta interes-espezifikotik begiratuta. Gainera, eponimoaren ordezkari izen deskriptiboagoa proposatzen dugu).

- *Falco severus*: **zuhaitz-belatz ekialdetar** (Iribarrek *belatz zorrotz* dakar, baina iruditzen zaigu zuhaitz-belatz guztiak izen generiko bakarraren azpian bateratzea koherenteagoa dela, ikuspegi intralinguistiko eta interespezifikoetik begiratuta).
- *Falco longipennis*: **zuhaitz-belatz australiar**
- *Falco novaeseelandiae*: **belatz zeelandaberritar**
- *Falco berigora*: **berigora belatz**
- *Falco hypoleucos*: **belatz gris**
- *Falco subniger*: **belatz beltz**
- *Falco biarmicus*: **hego-belatz**
- *Falco jugger*: **jagar belatz** (Indierako *jaggar* hitzean dute oinarria izen zientifikoak eta, ondoren, beste hizkuntza batzuetako izen arrunt gehienek; Iribarrek *Laggar belatz* dakar, baina *jagar belatz* proposatzen dugu).
- *Falco cherrug*: **sakre belatz**
- *Falco rusticolus*: **ipar-belatz**
- *Falco mexicanus*: **belatz mexikar**
- *Falco peregrinus*: **belatz handi**
- *Falco fasciinucha*: **taita belatz**

Zuzentzaileen ekarpenak eta oharrak

Dokumentu honen lehenengo bertsioa Asier Sarasuak ondu zuen eta, ondoren, beste 8 txorizale euskaldunen artean banatu eta aztertu da: Aitor Galarza, Martin Rezola, Edorta Unamuno, Azaitz Unanue, Jon Zubiaur, Maite Laso, Miel Mari Elozegi eta Aitor Leiza.

Hauek izan dira eztabaidagai izan ditugun puntu nagusiak:

- **zopilote:** Sarcoramphus, Coragyps eta Cathartes generoak. Iribarrek 'zopilote' proposatu zuen Cathartes generoko espezie batzuentzat eta 'sai' beste batzuentzat, baina iruditzen zaigu egokiagoa dela Cathartidae familiako kide guztiei izen berbera eta zehatza ematea eta horretarako Ameriketako euren jatorrizko lurraldeetan erabiltzen den 'zopilote' izena lehenestea, 'sai' generikoa Eurafraziako Aegyptiinae eta Gypaetinae subfamiliarentzat utzita.
- **zemaiz:** Polyboroidinae subfamiliako genero bakarreko 2 espezieak (Polyboroides generoa). Talde berezia da eta inguruko hizkuntzetan ez dago batasun handirik (aguilucho ES, gymnogène FR, arpella CA, harrier-Hawk EN, Weih DE, gimnogene IT); Iribarrek proposatutako zemaiz onartu dugu, jatorria ezagutzen ez dugun arren.
- **liztorjale:** Perninae subfamiliako Pernis eta Helicopernis generoak (abejero ES, bondrée FR, aligot vesper CA, honey buzzard EN, Wespenbussard DE, falco IT). Iribarrek 'zapelatz liztorjale' generoidea darabil, baina munduko liztorjale guztiak aztertu eta osorik izendatzean, 'zapelatz' generikoak garrantzia galtzen du eta nahikoa iruditzen zaigu 'liztorjale' baliatzea. Lehendik ere proposatu eta erabili izan da forma soildu hori han-hemen, eta halaxe hobetsi dugu. Kontuan izan behar da espezie hauek oso urruti daudela filogenetikoki benetako zapelatzetatik (Buteoninae subfamilia). Gainera, horrela 'zapelatz' generoidea kasu zehatzagoetarako utzi dezakegu (Buteo generotik hurbilago dauden genero eta espezieentzat, aipatutako Buteoninae subfamiliakoak) eta ez edozein harraparientzat, izen arrunt espezifikoez eskatzen duten zehaztasuna areagotuz eta bermatuz, eta taxonomiari behar duen pisua emanez.
- **ilaintsa:** Harpagus generoko kideak (Harpaginae subfamilia bereziko generoa; 2 espezie). Inguruko hizkuntza batzuetan miru izendatzen dituzte txori hauek (milano ES, milà CA, kite EN, nibbio IT). Hala ere, "benetako" beste miruetatik nahiko urruti daude eta iruditzen zaigu baliabide egokia izan daitekeela miruaren beste sinonimo bat erabiltzea talde hau izendatzeko. Horretarako, ekialdeko euskalkietan orokorra den eta Hiztegi Batuan onartuta dagoen 'ilaintsa' proposatzen dugu. Ondare tradizionalako baliabidea izanik, uste dugu izen arruntek behar duten zehaztasun eta espezifitateareagotzen duela eta ondare zaharreko termino eta izenak berreskuratzeko bidean erabaki egokia dela.
- **arraipardo:** Butastur, Busarellus, Rostrhamus eta Helicolestes generoetako kide guztiak. Estuki lotuta dauden 4 genero berezi dira. Filogenetikoki aztoeen eta zapelatzaren artean kokatuta daude eta itxuraz beste genero batzuen arteko ezaugarri nahasiak dituzte. Butastur genero-izenak ere horixe iradokitzen du, gabiraien eta zapelatzaren artean daudela genero horietako kideak. Iribarrek 'zapelatz' zein 'miru' erabili zituen talde hauetako kideak izendatzeko (espezie batzuk zapelatz, beste batzuk miru) eta inguruko hizkuntzetan ere ez dago orobateko batasunik, esate baterako, busardo vs. caracolero (ES), busautour vs. milan vs. buse (FR), aligot vs. caragoler (CA), buzzard vs. hawk vs. kite (EN), poiana vs. nibbio (IT) eta abar. Uste dugu euskarazko 'arraipardo' izen egokia izan daitekeela 4 genero hauetako espezieak izendatzeko, benetako zapelatz eta miruetatik bereiztuz, eta talde honen berezitasuna azpimarratzeko, izen arrunt espezifikoa eta zehatzagoak sortuz. Euskaltzaindiaren Orotariko Hiztegian jasota dator.

Asier Sarasua (Euskal Batzorde Ornitologikoko idazkaria), Aitor Galarza (Bizkaiko Foru Aldundia), Maite Laso (Aranzadi Zientzia Elkarte), Martin Rezola (IVAP Euskal Institutua), Edorta Unamuno (Urdaibai Bird Center), Azaitz Unanue (Txepetxa Hegaztien Zientza-Eraztunketarako Elkarte), Jon Zubiaur (Kulixka Irteera Ornitologikoak), Aitor Leiza (Itsas Enara Elkarte Ornitologikoa), Miel Mari Elosegi (Nafarroako Gobernu Basozaina).

Euskal Batzorde Ornitologikoa

